

Ongi Heldu Euskal Herrian, dei bat Hegoaldeko enpresei

Jaki / **BAIONA**

Hego Euskal Herriko lantegien hunkitzeko eta hauekin elkar lan bat eramateko asmoarekin, 'Ongi Heldu Euskal Herrian' kolektiboaren barne den mugaz gaineko batzordearen partaideek, Marie Totorika, Gilbert Chimens eta Pierre Senchou-k, Hego Euskal Herrian zabaltzen den prentsa gomitatzen zuten, atzo goizean, Baionan.

Ongi Heldu Euskal Herrian kolektiboaren xedea da erakustea Euskal Herrian bizitzen ahal dela eta enpleguak sortzen bultzatzea. Mugaz gaineko batzordea, jaz, sortu dena, harremanak bultzatu nahi ditu Euskal Herri bi aldetako lantegi eta erakundeen artean. Lehen helburua da Hego Euskal Herriko lantegi gehien baten hunkitzea, helduden urtean, lantegi hauek, Ipar Euskal Herrikoekin batera elgarrekin, kanpainen parte har dezaten.

1991ko Ongi Heldu Euskal Herrian kanpainaren gai nagusia izanen delarik Elkarlaguntza,

mugaz gaineko batzordeak, urtarila 15ean bidaliko du Hego aldeko lantegiei lehen galdeketa bat. Galdeketa hauek itzuli beharko dira martxoaren 15erako berantean helbide huntara: Ongi Heldu Euskal Herrian, Hemen elkarrekin, Alliance Erresidentzia, 64200 Angelu. Telefona: 07/33.59.52.40.30.

Apirilaren 15ean epai mahai batek enpresa batzu saristatuko ditu; saristatzeak egiten dira tokiko lantegien kausitzea sustatzeko. 1991ko kanpaina apirilaren 15tik 20a arte iraganen da.

Ongi Heldu Euskal Herrian kanpaina, lehen aldikotz, 1988ko maiatzean bultzatu zuen Hemen elkarrekin helburu zaukalarik lantegi, enplegu eta formazio arloek dituzten arazoei jendea ohartaraztea.

Aurtengoa kanpaina gazte bereziki itzulua izan da, Ipar Euskal Herriko eskola ainitzek parte hartzen zutela «gure nahia zen gazte lan mundua ezagutzea»; kanpaina hau berrogoi erakundeek lagundu dute.

Hogeitalau orduko 'ultimatum'a du EEEk bere jarrera aldatzeko

EEBBk nekazal negoziatioek porrot egingo dutela iragarri zuten atzo

Europear Batzordea atzo arratsaldean bildu zen Bruselaren nekazal subentzioei buruzko bere lehen proposamena aldatuko duen ala ez erabakitzeko. Izan ere, bere jarrera aldatuz gero negoziatioek aurrera jarraituko lukete, Uruguayko Errondak bizi duen krisia gaindituz.

A.I. / **DONOSTIA**

«Europako Ekonomia Elkarrekin badaki egoera larria dela eta litekeena da Ministroen Kontseiluak bere proposamena aldatzea, beste sektoreek ere euren jarrera aldatzen badute, noski».

Europear Batzordea honela mintzatu zen, nekazal subentzioei buruzko proposamena eztabaidatzeko egin zuen bileraren aurretik.

Azken egunotan Estatu ezberdinetako ordezkariak elkarriketak izan ditu Batzordeak, batzu eta beste eskariak zeintzu diren ezagutzeko. Izan ere, Estatu Batuentzat eta Cairns Taldearentzat (Argentina, Brasil, Colombia, Chile eta Uruguay) EEEk proposatu duen nekazal subentzioen ehuneko hogeitahamarren murrizketa ez da nahikoa. EEEk bere jarrera aldatzen ez badu, Uruguayko Erronda utziko dutela azpimarratu dute azken Estatu hauek.

Estatu Batuetako kanpo Merkataritzarako Ministroak, Carla Hills-ek, egungo blokeoak irtenbiderik ez duela esan zuen atzo.

«Ez da erretoriketan biltzeko garaia. Onar daitekeen akordio bakarra merkaturaren liberalizazioa da. Nekazaritzaren erreforma aurrera ateratzeko, estatu bakoitzak txikitu egin beharko ditu nekazaritzara zuzen-



✓ Nekazal dirulaguntzei buruzko desadostasunak direla eta, bertan behera gera daitezke Uruguayko Errondako azken lau urteotako negoziatioak.

duetako dirulaguntzak eta merkatu mugak deuseztatu» gaineratu zuen Hills-ek.

EEE EZ DAGO ISOLATUTA «Ez da egia Europako Ekonomia Elkarrekin isolatuta dagoenik, Estatu Batuek dioten bezala, bere proposamenak Japon, ASEAN eta EFTAko herrien babes duela. Beraiek dira baztertuta daudenak, noraezean dabilzanak» esan zuen atzo Ray MacSharry, Nekazaritzarako europar Komisarioak.

Aldiberean argitu zuen, herrialde askok negoziatioetatik kanpo ikusten duela bere burua, Europear Batzordeak alde guztien interesak kontutan hartzen dituen bitartean.

«EEEri oso garrantzitsua zaio negoziatioetan arrakasta lortzea, baina garrantzitsua da gainontzeko herrientzat ere bai, eta bereziki garapen bideetan dauden herrientzat» adierazi zuen MacSharryk.

GATT Arantzel eta Nekazaritzari buruzko Akordio Orokorren presidentek adierazi zuen, azkenik, gaur eguerdira orduak funtsezkoak direla, «tarte honetan nekazaritzari buruzko negoziatioen etena gainditu bait genezake».

Uruguayko Errondako azken negoziatioak joan den astelenez geroztik daude «impass» egoera honetan, Europako Elkarrekin ez duelako nahi izan, Estatu Batuek eskatu bezala, bere jarrera aldatu nahi izan.

Gasteizko Gabilondon lana utziko dute 55 urtetik gorakoek


F.I. / **GASTEIZ**

ESkk Gabilondo enpresaren plantila murrizketaren egitasmoa salatu zuen atzo. Datorren urtarilatik aurrera 55 urteko gorakoak lanari utziko diote eta Soldata Garantien Fondora pasatuko dira. Pasa den astelehenean Gabilondoko langileek onartu zuten enpresak aurkeztutako egitasmoa, hasiera batetan ados ez bazeuden arren.

Enpresaren asmoen arabera lanean ari diren 55 urtetako gorakoak lana utziko dute 1.431.000 pezetaren truke. Hileroko soldata langabezien

fondotik %80a eta enpresatik %7a jasoko dute 55 eta 60 tartekoak eta hortik aurrerakoak jubilatuko dira. Langile kopurua 190tik 120 jetsiko da urtarilean.

ESK-CUISen esanetan jabeek ez dute sosik inbertitzen eta instituzioek ez dute enpresa birmoldatzen armak egiten dituztelako. Egoera honen aurrean enpresak enplegu erregulazioak egiteari eutsiko dio urtarilatik aurrera. Enpresako komiteak kontrako jarrera agertu bazuen ere hasiera batean, ez du oztoporik jarri enpresak kaleratutako langileei diru kupurua jaso ziotenean.



**Urte
Guztiko
Bertso eta
Ipuinak**



sendoa
argitaldaria

Carlos I, 22
20011 DONOSTIA

☎ 46 24 33 — 46 25 77 — 46 25 44

ONGI IKUSI BEHARREKO

Egunkaria

URTE ASKOTARAKO!!!

MENDIAOPTIKA

DEDE 1856 AZ CERO



MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel 33 (Anbulategi aurrean)

GASTEIZ